1.- 2023ko URRIAREN 25EAN ETA AZAROAREN 16AN EGINDAKO BILKUREN AKTEN ONESPENA.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2023ko urriaren 25eko bilkuraren akta onartzea. Udalbatzak erabaki du aho batez 2023ko azaroaren 16an egindako bilkuraren akta onartzea.

2- 2023ko URRIAREN 20tik ABENDUAREN 15a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Remiro Esnoz andreak, 2023ko urriaren 20tik abenduaren 15a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du.

Gil zinegotziak hartu du hitza, eta esan du ez dagoela aurreko urteetan bezala ebazpena, ikasleen zerrenda eta ikasteko laguntzak jasotzen dituen, eta harriztasuna dagoela, gai publikoa baita. Remiro Esnoz alkateak erantzun du gai honi buruz ebazteko modu desberdinak egon direla, eta, oraingoan, erabaki dela batzordean ebaztea eta alkatetzaren ebazpen orokorra egitea, partikularren datuak aurkeztu gabe, datuen babesari dagokionez. Nolanahi ere, udalbatzako kide guztiek dute espedienterako sarbidea. Batzordean erabaki zen ez zela beharrezkoa ebazpena osoko bilkurara eramatea, eta, beraz, aktan laguntzaren onuradun izan diren pertsonen zerrenda agertuko zela. Zerrenda hori ebazpenari erantsi ahal zaio. Onartu ez direnak agertzen dira, izendunak direlako.

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du 174 ebazpena, Kontzejuaren aretoaren erabilerari buruzkoa, Erroko Kontzejuak errekurritu duela eta erantzunaren zain dagoela, eta 170 ebazpenak baliogabetu eta zuzendu egiten duela 133 ebazpena, Baigorriko Sindikatuak udal titulartasuneko pista egiteko obra-lizentziari buruzkoa.

Udalkideak jakitun dira.

3.- BEHIN BETIKO ONESTEA 2022. URTEKO EKITALDIAREN KONTUEN ESPEDIENTEA.

Alkateak jakinarazi du jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, 2022ko kontuen espedientea behin betiko onetsi behar dela.

Aitortutako eskubide garbiak 1.276.187,06 € dira, aitortutako obligazio garbiak 1.158.703,17 € eta diruzaintzako gerakina 1.117.288,21 €.

Aho batez erabaki da:

1.- 2022ko kontuen espedientea onestea eta Nafarroako Gobernura igortzea.

4.- 2024ko ZERGA TASAK

Bidaurreta zinegotziak bilkuran sartu da.

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta iazko tasa berak mantentzea proposatu du, Lurralde Kontribuzioaren gaineko Zergaren kasuan izan ezik, zerga hori handitzea proposatu baitu, 2020ko abenduaren 30eko bilkuran erabakitakoaren arabera, hau da, urtero % 0,02ko tasa igotzea, % 0,25era iritsi arte.

Udalak erabaki du aho batez 2024ko zerga tasak honakoak izatea:

1.- Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: Balorazio Ponentziaren ondoriozko landa- eta hiri-katastroko balioaren gaineko 0,23ko karga-tasa bakarra.

2.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)

3.-1,10 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordainarazteko.

4.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175. Artikuluan ezarritako gehieneko portzentajeak aplikatzea eta karga-tasa %8,6ko izatea..

4.- 2023ko AURREKONTUKO ALDAKETEN ONESPENA

Remiro Esnoz alkateak eman dio hitza Ezcurra idazkari andreaki, puntu honen xede den aurrekontuko aldaketa azal dezan. Idazkari andreak hartu du hitza eta aditzera eman duenez, beharrezkoa da hurrengo aurrekontu aldaketa onestea, larreak mantentzeko kontu-sailaren gastu soberakinari aurre egiteko behar adinako poltsarik ez dagoelako. Partida 19.000 eurokoa zen eta 27.000 euro inguru gastatu dira. Ez da beharrezkoa diferentzia osoa aldatzea, baina bai 2.672,70 eurokoa gastua egin ahal izateko.

1.- Partida handitu da eta diruzaintzako soberakinaren bidez finantzatuko da.

2023ko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 4121 2219900	BAZKALEKUAK MANTENTZEA	2.672,70

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>		2.672,70
--------------------------	--	----------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 87000	GASTU OROKORRETARAKO SOBERAKINA	2.672,70

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i>		2.672,70
-------------------------------------	--	----------

Udalbatzak erabaki du aho batez proposatutako aurrekontuko aldaketa onartzea.

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluekin bat, txostenak jendaurrean egonen dira 15 egun balioduneko epean udaletxeko idazkaritzan, nahi duen orok aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzan.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean txostena behin betiko onetsizat emango da baita haren laburpena iragartzeko izapidea betetzat ere.

6.- JAI EGUNEN EGUTEGIA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta 2024rako egutegi-proposamen hau aurkeztu du, eta lan-egutegia hurrengo osoko bilkuran onartuko dela jakinarazi du, oraindik ez baitu Nafarroako Gobernuak argitaratu eta, beraz, gestoriak ezin izan baitu bidali.

Aho batez erabaki da:

1.-Tokiko festen egutegi hau onartzea:

San Juan festa: Ekainaren 24a

San Nikolas: Abenduaren 5a

2.- Erabaki hau Guardia Zibilaren kuartelera, Osasun Zentrora, Suhiltzaileen Parkera, udalerrri honetan kokatutako banku-erakundeetara eta egutegi horretan eragina duten erakunde eta organismo guztietara helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzaten.

7.- BALORAZIO PONENTZIA BERRIKUSTEA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta adierazi du gaur egungo ponentzia 2024ko martxoan amaitzen dela eta, beraz, bidezkoa dela hura berrikustea, eta bost urtean behin berriz ere berrikustea onartu behar dela.

Aho batez erabaki da:

- 1.- Erroibarko Udalaren balorazio ponentzia berritzea
- 2.- Ponentzia prestatzeko lanak Tracasari adjudikatzea eta aurkeztu duten aurrekontua, 6.835,35 €, onartzea.

8.- GAZTERIAKO POLITIKA PUBLIKOAK SUSTATU ETA LAGUNTZEKO ETA TOKIKO PLANA EGITEKO EDO AZTERTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta gazterriako politika publikoak bultzatu eta laguntzeko eta tokiko plana egin edo aztertzeko laguntzen deialdian proiektu bat aurkezteko aukera planteatu du. Proiektua Artelanek prestatuko luke. Enpresa horrek gazterriaren parte-hartze prozesua dinamizatu eta landu zuen, eta haiekin bilera egingen du bihar bertan lan egiteko, oso denbora gutxi baitago eskaera aurkezteko. Nolanahi ere, parte hartzeko prozesuan egindako lan guztiak diagnostikoa prestatzen lagunduko du, eta, hala badagokio, deialdi honen xede den tokiko plana prestatzen. Aho batez erabaki da laguntzetarako eskabidea aurkeztea, gazte politika publikoak bultzatu eta sostengatzeko eta toki plana prestatu edo aztertzeko.

9.- TURISMO PROIEKTUAK HTJP (Helmugako Turismo Jasangarritasunerako Plana)

Suteen aurkako Plana (honi erantsita PPErro suteak doc.)

Kaizen Proiektua-Sorogaingo aterpea-musealizazio digitala (dokumentua erantsita)

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du kasuan kasuko arloan hiru proiektutan lan egin dela, nahiz eta osoko bilkurara hiruetako bi ekarri diren, hirugarren proiektua bukatu gabe dagoelako. Hori dela eta, bilkura berezi bat deituko da urtarrilaren 15a baino lehen, aurkeztu eta onartzeko. Horri gehitu behar zaio Kaizen enpresak Sorogaingo-musealizazio digitaleko aterpetxeari buruz egindako proiektuari dagokionez, GuPirinioa-Cedernako teknikariak aztertu beharreko zenbait ohar egin dituela, eta, beraz, kendu egingo direla, gehiago landu eta aipatutako bilkura berezian onartu ahal izateko. Hori ikusita, aho batez erabaki da Basarteak idatzitako Suteen aurkako Plana erredaktatzeko proiektua onestea, 15.000 euroko kostuarekin gehi BEZa, eta Helmugako Turismo Jasangarritasunaren Planean aurkeztea.

10.- GAZAKO SARRASKIAREN MOZIOA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du Pirinioetako Mahaitik mozio bat iritsi dela Udalera, Gazan gertatzen ari den sarraskiaren kontra, eta osoko bilkurara aurkeztu da, onets dadin.

Garralda zinegotziak hitza hartu du eta bere taldea abstenitu egingo dela esan du, mozioan ez delako aipatzen Jamasek Israelen egindako eraso terroristarik, eta uste dute dena agertu beharko litzatekeela

Horiek horrela bozketa egin da eta erabaki da aldeko lau botoz (Remiro Esnoz, Jiménez Rey, Nuño Iturri eta Zaldúa Ortiz de Guzmán) eta hiru abstentzioz (Garralda Erro, Bidaurreta Azcarate eta Gil García) ondoren transkibatzen den mozioa onartzea eta erabakia Nafarroako Legebiltzarrerara igortzea:

GAZAKO SARRASKIAREN MOZIOA

Nafarroako Parlamentuari eskatzen diogu:

1- Gatazkako alderdiei nazioarteko legea betetzeko eskatzea, bereziki NBEren ebazpenak.

2- Salatzea Israelek milioi bat pertsona baino gehiagori emandako ebakuazio-agindua, nazioarteko zuzenbidearen aurkako nahitaezko desplazamendua eraginez, eta eskatzea laguntza humanitaria sartzea, herritarrek ura, elektrizitatea, elikagaiak, sendagaiak eta bizitzarako funtsezkoa den guztia eskura ditzaten.

3- Salatzea Israelek gazatarrei ezartzen ari dien zigor kolektiboa; izan ere, besteak beste, Genevako Konbentzioak eta Hayako Konbentzioa barne hartzen dituen Gatazka Armatuen Legearen arabera, zigor kolektiboa gerra-krimena ez ezik, Gizateriaren aurkako krimena ere bada.

4- Beraz, Nafarroako Parlamentuari eskatzen diogu Espainiako Gobernuari eska diezaiola indarrean dagoen nazioarteko Legea betetzeko eta betearazteko duen betebeharraren arabera joka dezala, eta su-eten berehalako eta iraunkorra eska dezala.

11.- NAFARROAKO TORTURATUEN SAREAREN MOZIOA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta honako mozio honen berri eman du: "Nafarroako Torturatuen Sarea" elkarteak proposatu du Udalbatzak onartzea eta, hala bada, erabakia Herritarrekiko Harremanetarako Kontseilaritzara eta Bake eta Bizikidetzeta Departamentuko Zuzendaritza Nagusira igortzea, baita "Nafarroan torturatutako pertsonen sarea" elkartera ere.

Ondoren bozketa egin da eta aho batez jarraian transkibatzen den mozioa onartu da:

2022ko otsailaren 12an, “Nafarroako Torturatuen Sarea” Elkarteak sortu zen, Foru Komunitatean motibazio politikoagatik tratatu txarrak eta torturak jasan dituzten nafarrentzat egiaren erreklamazioan, aitortzan, erreparazioan eta ez errepikatzeko bermean beste urrats bat emateko helburuarekin.

Elkarte hau torturatuen errolda egiten ari da eta gaur egun 1.000 kasu baino gehiago jaso dira, horietatik sei udalerrri honetan.

Elkarteak zabalduko datuen arabera, honako hauek erregistratu dira:

- 1.000 tortura-kasu baino gehiago.
- Jasandako torturen ondorioz hildako bi pertsona: Mikel Zabalza eta Antonio Goñi Igoa.
- Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiako Estatuari ezarritako zigorra Igor Portu eta Mattin Sarasola torturatzeagatik.
- Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiako Estatuari ezarritako lau zigor, Nafarroako lau herritarren (Oihan Ataun, Javier Beortegi, Patxi Arratibel eta Iñigo Gonzalez) tortura salaketak ez ikertzeagatik.
- 2011. urteko txosten bat, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak egina, Nafarroako hiru pertsonaren torturen lekukotzari sinesgarritasuna emanez.
- Gutxienez Nafarroako 101 herritan torturak eragina izan du.

Azken urteotan, erakunde publikoak urratsak ematen ari dira kasu hauek argitzeko. 2019ko ekainean argitaratu zen **“Nafarroako Foru Komunitatean 1960-1978 bitartean izandako tortura eta tratatu txarrak ikertzeko proiektua”**, Nafarroako Gobernuak Kriminologiaren Euskal Institutuari (KREI) eskatua. Bertan, ondorioen artean jasotzen da azterlana 1978tik hurrengo urteetara zabaltzeko beharra, Nafarroako torturaren eta tratatu txarren benetako dimentsioa ulertzeko.

2023ko urtarrilaren 19an, motibazio politikoko biktima-izaera deklaratzeko eskaerak aurkezteko epea ireki zen, **16/2019 Foru Legearen arabera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei aitorpena eta erreparazioa emateko.**

Joan den otsailaren 7an, Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC-KREI) Nafarroako Parlamentuan **“Tortura eta beste tratatu txar batzuei buruzko ikerketa Nafarroan 1979tik gaur egunera”** izeneko txostena aurkeztu zuen, 2022ko ekainean Herritarrekiko Harremanen Departamentuak Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

Nagusiaren bidez bultzatutako diru-laguntza publikoa esleitu ondoren. Dokumentu honetan berrezten dute, aurrez egindako ikerketan (1960-1978) lortutako datuen eta oraingoaren (1979-2015) baturak kasuen unibertso bat aurkezten digutela, ikuspegi kuantitatibotik, proiektatutako azken zifra batekin, 1960-2015 aldirako kaltetutako 891 pertsonen gainean 1.068 kasuak gaitutako lituzkeela.

Torturaren eragina jasan duten 101 herrietatik 53k elkartasuna eta esker ona adierazi diete torturaren eta tratu txarren biktima izan diren nafarrei.

Jarduera hauek guztiek argi erakusten dute azken urteotan aurrerapausoak ematen ari direla giza eskubideen urraketak jasan dituzten pertsona guztiei egiaren, aitortzaren eta erreparazioaren bidean. Gizarteari zor diogu, etorkizuneko belaunaldiei, gertatutakoa argitzea, hori baita modurik eraginkorrena torturaren praktika desagerrarazteko.

Botere publikook motibazio politikoko egintzek eragindako giza eskubideen urraketari buruzko egiaren ezagutzan, eta biktima hauen errekonozimenduan eta erreparazioan lagundu behar dugu. Horregatik, udalek eta toki-erakundeek ere urrats eraginkorrak eman behar ditugu egiaren aitortzan eta erreparazioan aurrera egiteko. Are gehiago, herritarren artean kalte hori pairatu duten pertsonak baldin badaude.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

EBAZPEN-PROPOSAMENA

1.-Erroibarko Udalak elkartasuna eta aitortza agertzen du torturaren eta tratu txarren biktima diren nafarrei, eta, bereziki, udalerrri honetako bizilagunei.

2.- Udalak bere konpromisoa adierazten du egiaren ezagutzan eta egon litezkeen kasuen erreparazioan laguntzeko.

3.- Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio tortura eta tratu txarren praktika saihesteko eta ezabatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ditzala, ez errepikatzeko mekanismoak ezarriz.

4.- Udalak ebazpen honen berri emanen die Nafarroako Gobernuari, Herritarrekiko Harremanetarako Kontseilaritzari eta Bake eta Bizikidetzeta Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari, jakinaren gainean egon daitezen, eta onespeneren berri emanen dio "Nafarroako Torturatuen Sarea" Elkarteari, helbide elektronikoa honetan:

nts.harremanak@gmail.com

12.- NAFARROAKO ONDAREA DEFENDATZEKO PLATAFORMAREN PROPOSAMENA

Remiro Esnoz alkateak, Nafarroako Ondarea Babesteko Plataformak Udalari onets dezan bidali dion hurrengo proposamenaren berri eman du, Elizak ondasunak behar ez bezala inmatrikulatu dituelako. Proposamen horretan, laguntza ekonomikoa ematen zaio bere ekintzari, eta, Udal honen kasuan, biztanleei erreparatuta, urtean 200 eurokoa da. Garralda zinegotzi jaunak hitza hartu du, eta adierazi du bere taldeak aurkako botoa emango duela, azkenean Udalak duen ondarea bi eliza baitira, Loizukoa eta Ardaizkoa, eta uste du, jabetzak Udalari itzultzea lortzen bada, konpondu egin beharko dituela, bere ustez Artzapezpikutzak egin behar dituenen.

Horren ondoren, bozketa egin da eta aldeko lau botorekin (Remiro Esnoz, Jiménez Rey, Nuño Iturri eta Zaldúa Ortiz de Guzmán) eta kontrako hiru botorekin (Garralda Erro, Bidaurreta Azcarate eta Gil García) erabaki da Nafarroako Ondarea Babesteko Plataformak planteatutako proposamena onartzea eta urteko 200 euroko ekarpenarekin laguntzea.

Hartutako erabakiaren berri Nafarroako Ondarea Defendatzeko Plataformari ematea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Gai zerrendatik kanpo eta premiazko arrazoiengatik, Remiro Esnoz alkateak proposatu du derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko ikasleen garraioari buruzko baldintzen agiria sartzea, onets dadin. Iaz, hitzarmen bidez, Nafarroako Gobernuak diruz lagundu zuen garraioa, eta badirudi aurten ere hala izango dela, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren bidez. Joan den urteko baldintza-agiria baliagarria izango zen luzapena posible zelako, baina prezioak aldatu egin direnez eta ibilbideak ere bai, ibilbideek ordutegiak eta joan-etorriak bateratzen baitituzte, berriro ere lizitaziora atera behar da garraio-zerbitzu hori esleitzeko.

Nuño zinegotzi andreak jakinarazi du Hezkuntza Sailak familiei ematen dizkien banakako laguntzen zati bat jasotzen ari direla, eta Udalaren kontuan sartuko dituztela. Dirudienez, iazko laguntzak baino handiagoak dira.

Aho batez erabaki da derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasleen garraioa arautzen duen baldintza-agiria onartzeko gaiak hitz egitea. Baldintza pleguari eranskin bat erantsi zaio, ibilbide bakoitzaren ibilbidea jasotzen duena, eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian eta Plena Plataforman argitaratzea.

13.- BESTERIK

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta aurreko bilkuran bezala, sortutako lan-arloen arabera, honako hau jakinarazi du:

1 Arloa (Gizarte ongizatea, osasuna eta berdintasuna) Jimenez Rey zinegotziak informazioa eman du

Gazteriaren prozesu parte-hartzailea

Jakinarazi da azaroaren 9an bilera egin zela gazteen ordezkarien eta udalbatzaren artean, eta bertan jaso zirela eurentzat garrantzitsuenak diren gaiak, hala nola: etxebizitza, Udalaren komunikazioa eta Erroibarko Egunean eta beste batzuetan parte hartzea. Pozik agertu ziren egin zen prozesuarekin eta lan-eremu horiei eusteko borondatearekin.

Udalbatza jakitun da.

Berdinatsuna

Azaroaren 23an Ariben Kudeaketa Mahaiarekin izandako bileraren berri eman da. Mahai horretako kide dira Alkatetzak eta Udalek mahaiari dituzten ordezkariak. Bilera horretan, berdintasunerako agenteak ibilbide-orria aurkeztu zuen eta berdintasunerako batzorde bat sortu zen, udaletako 3 ordezkari eta arlo horretan lan egiteko interesa duten elkarte edo jendeak osatua. 2023. urtean Udalarentzat 1.480 euro langileria gastuengatik eta 424 euro zerbitzuko gastuengatik izan dituen gastuen berri eman da, bai eta 2024. urterako aurreikusitako aurrekontuaren berri ere. Udalak 3.152 euroko gastua izango du langileengatik eta 468 eurokoa zerbitzuengatik, diru-laguntza kenduta.

Otsailaren 25eko ospakizunetan egindako ekitaldien berri ere eman da. Oso ondo atera ziren, nahiz eta hutsegitea izan zen gutun-azalen banaketari dagokionez, Ibarreko jende askori ez baitzitzaizkion gutun-azalak iritsi, eta hurrengo urteetarako gutxienez N-25a baino hamabost egun lehenago banatu behar dira.

NABIk diruz lagundu duen proiektuari dagokionez, bi jarduera gauzatzea falta da.

0,7 Laguntzak

0,7 laguntzei dagokienez, bi eskaera aurkeztu dira.

Desak

Desfibriladoreei dagokienez, birtziklatze ikastaroak prestatu behar dira, urte bakoitietan egin behar direlako, eta, aurten egin ez badira ere, ez dago arazorik urtarriean egiteko.

Mendekotasunen Tokiko Plana

Azkenik, jakinarazi da gaur, ordu berean, Antox-en (Mendekotasunen Plana) "pause" programa aurkezten ari direla. Mahai tekniko bat sortu da eta mahai politiko bat sortzeko zain gaude. Mendekotasun-plana eta berdintasuna kudeatzeko mahaiaren akta banatuko dira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

2. Arloa (Kultura, kirola eta euskera) Nuño zinegotziak informazioa eman du

Musika Eskola.

Musika Eskolak 2024rako duen aurrekontuaren berri eman da. Aurten Erroibarko ikasle gutxiago dago, hortaz, Udalak zertxobait gutxiago ordaindu beharko du, 12.220,00 € hain zuzen ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Berragu Liburutegia

Zaldia zinegotzi jaunak Nafarroako Gobernuak bidalitako gutun baten berri eman du, non Berragu Liburutegian parte hartzen duten Udalei eskatzen dien Mikel Albisu ETari lotutako iraganaren ondorioz irakurketa klubaren koordinatzaile kargutik kentzeko. Inguruko udalek bilera egin zuten Kultura zuzendari nagusiarekin eta Bizikidetzarako eta Memoriarako zuzendari nagusiarekin, gutunaren nondik norakoak ez zituztelako ulertzen. Bilera horretan, Nafarroako Gobernuak beren jarrerari eutsi zion, gai etiko eta ez juridiko batengatik, legez ez baitirudi ezer egin dezaketenik. Hori ikusita, udalek erabaki dute pertsona hori mantentzea eta irakurketa-klub hori koordinatzen jarraitzea, duela lau urtetik martxan dagoen klub bat baita, erregulartasunez funtzionatzen duena eta koordinatzailea beti bera izan dena, orain arte inolako arazorik izan gabe eta une honetan ez duelako inolako kausarik epaitzeke.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Abenduaren 3ko kontzertua

Azkenik jakinarazi da abenduaren 3an egindako kontzertua oso ongi atera zela eta abestu zuen abesbatzak eman zitzaion harrera eskertu zuela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3 Arloa (enplegua, industria, energia eraginkortasuna, turismoa, landa garapena) Jimenez Rey zinegotziak eman du informazioa

Over trails

Remiro Esnoz alkateak horrelako jardueretan esperientzia handia duen turismo-agentzia batek antolatutako baso-lasterketa baten berri eman du. Agentzia horrek hainbat entitateri dei egin zien, eta, gure kasuan, informazio bilera batera, Jimenez Rey zinegotzi andreak bertan parte hartu zuelarik. Halaber, urtarrilean herritar guztiei aurkeztuko zaiela jakinarazi du, zertan den azaltzeko. Nolanahi ere, Udalari laguntza eskatzen zaio materialei edo zerbitzuei dagokionez, baina ez dirulaguntza.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Landa Garapeneko Plana LGP

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du LGPren deialdi berria zabalik dagoela eta gaiaz arduratzen den taldeak deialdia aztertu eta landuko duela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Urrobi Partzuergoa

Jakinarazi da bideo-zaintzako kamerak prest daudela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Guifinet

Era berean, Udaleko banda zabalari eta zuntzari dagokionez, lan-eremuan nahiko kezkatuta daudela adierazi du, eta beharrezkotzat jotzen dute urtarrilean Guifinetekin presako bilera bat egitea, alde batetik, beste operadore batzuei zuntzaren hedapenak

onartzeko edo ukatzeko eskumenak zehaztu eta argitzeko, dirudenez, legehnaismendua dagoelako, eta, bestetik, zerbitzuaren erorketen gaia kezkatzen duelako, bilera batean konpondu zen arren. Gai horiek taldean lantzen jarraituko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Sorogaingo Aterpea

Jakinarazi da bilerak egin direla Sorogaingo aterpetxeko maizterrekin, alde batetik, duela zenbait urte konpondu gabe zeuden gaiak aztertzeke, eta, bestetik, baldintza-agiria berrikusteko, besteak beste ordutegiari dagokionez, izan ere, une honetan ez da betetzen, eta ordutegia egokitzea aztertzen ari dira, adostuko dena bete dadin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Agenda 21 eta Nels Sarea

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du Agenda 21en 2024rako deialdia irekita dagoela eta aztertu egingo dela, eta, Nels Sareari dagokionez, urriaren 30ean Nels Sarearen Batzar Nagusiaren bilera egin zela. Batzar horretan zuzendaritza batzordea aukeratu zen, eta Arantxa Arregi izendatu zuten mahaikide.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

4 Arloa (mendiak, abeltzaintza, bazkalekuak, ingurumena, ondarea, hondakinak)

Remiro Esnoz alkateak informazioa eman du

Gaztainondoen proiektua

Zaldua zinegotzi jaunak jakinarazi du joan den ostiralean Ingurumen teknikaria hitzaldi bat ematera etorri zela, Laurentxin gaztainekin lotuta egin nahi duten proiektu bati buruzko informazioa emateko, baita "matarrasa" bezalako jarduera batzuei buruzko informazioa ere, jendeak ekintza horien zergatia jakin dezan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

BBE

Remiro Esnoz alkateak, BBeko Pilotaje Batzordeak Udalean egin zuen bilerari buruzko informazioa eman du. Deitutako erakunde guztiak agertu ziren, Zilbetiko Kontzejua barne, Batzordean sartzea eskatu zuelako, nahiz eta orain bertan, Nafarroako Gobernuo teknikariak adierazi zuenez, BBE eratuta dagoen bezala, hori ezinezkoa den, erakunde kopuru bat dagoelako eta ezarritako kopurua dagoeneko beteta dagoelako. Kudeaketa plan bat egin zuen Nafarroako lehen BBEtako bat izan zen, eta orain arte ez da berriro Gobernu beste BBE batzuekin lanean ari zelako. Udalbatzari igorriko zaion dokumentua pasatu dute eta hiru asteko epea eman dute alegazioak edo oharra aurkezteko.

BBEren gai horrek Explora Sarearekin elkarreragiten du, jarduera-eremua partekatzean. Horregatik, eta Explora Sarearekin aurrera egiten jarraitu aurretik, BBE landu behar da edo, gutxienez, paraleloan joan, gai batzuk gainjartzen baitira. Explora Sarean ezin da erabakirik hartu BBE kontuan hartu gabe, haren ekintzen zati batek BBeri eragiten baitio Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

5 Arloa (hirigintza, azpiegiturak, etxebizitza)

Elurraren kudeaketa

Nuño zinegotziak jakinarazi du elurraren kudeaketari buruzko bilera izan zela Aurizberrin eta, besteak, beste, erabaki zela Aurizberriko elurraren garbiketaz Garraldako Beñat Barberena arduratzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Uraren mantentze Zerbitzua-Tabar

Jakinarazi da Tabar enpresak ur-biltegien errebisioa egin duela, nola dauden eta zer hobetu ahal den ikusteko, eta Ardaizko ur-biltegia garbitu dutela. Beste aldetik Tabar enpresak kloragailu automatikoak jartzeko proposamena egin behar du, oraindik aurkeztu ez badu ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ardaizko eraisketa eta kanposantuko kalteak

Nuño zinegotziak jakinarazi du biharko bileran, besteak beste, bi gai horiei buruz hitz egingo dela, oraindik ez zaielako irtenbiderik eman.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

LOEE

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolakuntzako Batzordeak LOEE eta alde zuzeneko hitzarmena onartu zituela abenduaren 18an.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

6 Arloa (ekonomia, kontuak, aurrekontuak, ogasuna, zergak)

2024ko aurrekontuak

Jimenez Rey zinegotziak jakinarazi du bilera egingo dela udalkideekin 2024ko aurrekontuan prestatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

7 Arloa (kontzejuak, herriak, pirinioa, toki administrazioa)

Bilera kontzejuekin

Remiro Esnoz alkateak aditzera eman du asmoa dutela urtarrilean kontzejuekin beste bilera bat egiteko, kontzejuetako presidente berriekin harremanetan jarri eta egiteke dauden gai batzuez hitz egiteko.

Jakinarazi da Zilbetiko Kontzejuak bilera eskatu duela hainbat gaiez hitz egiteko: hondakinak, Dana erauntsia, Tokiko Azpiegitura Plana, etab.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioko Mahaia

Remiro Esnoz alkateak bi bileren berri eman du, bata abenduaren 12an, Nafarroako aurrekontuei aurkeztu beharreko zuzenketak lantzeko, eta bestea urtarrilaren 11n legegintzaldi honetako behin betiko Pirinioetako Mahaia osatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

“Administrazioa zuzandik hurbil” Jardunaldia

Remiro Esnoz alkateak Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak Udalarekin lankidetzan antolatutako jardunaldiaren berri eman du. Jardunaldi hori urtarrilaren 23an izango da, udaletxean, eta herritar guztiei irekita egongo da. IKT tresnei buruzko prestakuntza da, lehen jardunaldia izan zen eta bigarren errefortzu hori errepikatu egingo da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

8. Arloa (festak, ekitaldiak, Erroibarko Eguna) Remiro Esnoz alkateak informazioa eman du

Mugalur Jardunaldia

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du Urepelen antolatutako jardunaldira ezin izan zela inor joan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

14.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 19:10ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.